


[2]

1970 - (Mortimer)

1





EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

ZER NUN

Irakur-Idazketa	1 or.
Pedagogia Bizia.....	3 "
Galdezka ari naiz	8 "
Erligioaren gakoa	14 "
Gure berriak	32 "

Erantzukizuna: Eguzkiña Senosiain-ek

IRAKUR - IDAZKETA

Hitza pentsamenduaren oinarri. Hitz bakoitza guk inguruakin ditugun har-emanen irudia.

Hitzak konzeptualak dira; konzepto hoiek esperientziaren bidez bakarrik gereganatzen ditugu. Beraz hitzak ulertzeko, beraiek duten esan nahia-
ren esperientzia behar da.

Honela lortutako hizkuntza bakarrik da es-
presio-bide, gainontzean muinik gabeko hitz-jario
bihurtzen da; nortasun ezaren, kultura ezaren adi-
erazgarri; pertsona axalak, kopiatazaileak sortzen
ditu; hitz batean, ondo errotutako hizkuntzarik ga-
be ezin diteke nortasun aberats bat iritxi.


Gaur egun oso erraza da, anka sartu gabe edo-
zer gaiezaz zoragarri hitzegitea naiz eta ezer
gutxi ulertu, hitzei beste konzeptu batzuk erantsi
nahasketa izugarriak sortuaz-edo-ta hitzen esan
nahia errealitatearekin identifikatu gabe.

Irakur-Idazketa ere, espresio-bide dira hitza-
ri zearo lotuak; besteak pentsatzen dutebaz jabe-
tzeko bat, eta pentsatzen duguna adierazteko bes-
tea.

Haurraren irakur-idazketaren konzeptu hauek itsatsi behar dira, ez esanaz-ez luteke ulertuko-praktikatuaz baizik, irakur-idazketaren teknikarekin batean.

Haurrek, idazten dutenean, beraiek dakitena i datzi behar dute, beraiek esperimendatuta daukatena. Idazten dutenaren esan nahia, beraiantzat bizi bizia, ezaguna izan behar du.

Pixkanaka beren begiak grafiakin familiari-zatzen joango dira eta hitz idatzia ahozkoarekin relacionatzen, beraz irakur-idazketa teknikaz ja-betzen.



Pedagogia Bizia

"Jostailu pedagogikoak" deritzatenen alde egin dako propagandaren orri bat dadukat eskuetan eta mila pentsakizun datozkit burura.

Oso ondo iruditzen zait gurasoen artean hala ko kanpaina bat egitea, delako jostailu hoirek nahiko ezezagunak direnez gero, ia beti jostailu berdintsuak erostera behartuta zeuden gurasoak aukera aberatsago baten aurrean jartzen dira-ta. Baina kanpaina horretan "jostailu pedagogikoak" erosteko erabili den arrazoin nagusiarekin ez nago ados.

Honela dio kritikatu nahi dudan puntuak:

"Beraz, jostailu pedagogikoak eta ez bestelakorik, opa behar diogu haurrari, bere ahalmenak lantzeko gai izan behar dutelako jostailuek...
"Orainartekoekin konforme egonarren, aklarazio bat egitea komeni dela uste dut eta jarraitu baino lehen hala egingo dut: Jostailuak ez dira pedagogikoak izan hau daramatenak bakarrik. Haurra, intelektualki, irudimenez edo fisikoki aktiboa izatera bultzako duten jostailu guziak izan ditez

ke pedagogikoak, hau da, bere heziketarako probe-
txugarriak. Jostailu tradizionalak - andere edo
panpinak, berebillak etab. balore handiak dituzte
konpletuegiak ez direnean behintzat, esate batera
ko, pilekiko jostailu gehienekin, haurrak begiratu
besterik ez bait du egin behar, balio handirik ez
dute. Alderantziz, kalean arkitutako makila bati
zumo handia aterako dio.

Jostailu guziak pedagogiko deritzatenak eta
besteak beren egitekoa betetzeko, kondizio hauen
barruan erabiltzea inportantea da: Haurra, beraie
kin gustora jostatzea, nahi duenean eta puskatze-
ko beldur handiegirik gabe.

Orain, orriak bere D) sailean ipintzen duana
ri jarraituko diot".... Honela, Gabon gauean -edo
haurrei jostailuak ipini ahal izanez gero, Egube-
rri aldi guztian haurra lantzen eta jostailuak e
rabiliaz zenbait gauzaren berri ikasten jarraitu
ko luke. Orduan, jakina egun horietan zerbaitetan
sakondu baldin badute haurrak, ikastolara esperi-
entzia berriekin agertuko dira, ez egun batzuk ha
la-hola edo ondo pasa dituzten iritziakin baka -
rrik... " Jarraitzen du bainan hemendik atzera

dinoanarekin akort bait nago, ez dut segiko.

Era hontako iritziekin, heziketaren ardatza " jostailu pedagogikoa " dela pentsatzea oso erra za dela iruditzen zait eta hau benetako disparate a dela uste dut.

Haurrentzako eraginkorrenak diren esperientzi ak ez dira beinere " jostailu pedagogiko " egin batzuekin jostatuz lortzen, bizitzaren bidez bai zik, hau da, benetako gauzakin, benetako saioak eginaz, adibidez beste hurrekin jostatzean, uretara harriak botatzean, kaskarrekoak hartzean, inork bai no salto handiagoa egitean... Esperientzia horiek dira aberatsak, beren biziarekin zer ikusia dutela ko, horiek dira ikastolak aintzakotzat hartu behar dituenak. Haurren oporraldiak beste egun guziak bezala, esperientzia aberasgarritz beterik daude ho nela bakarrik desarrollatu ahal izango bait du be ren nortasuna. Jostailu edukatiboaren bidez egin ditezken esperientziak berriz, beti bigarren mai-lakoak izango dira, nere ustez.

Hara jostailu horiezaz Decroly ospetsuaren laguntzaile izan zan V. Descordes-ek " El jardin de la infancia en la escuela Decroly " liburuxkan:

esaten duena: " El juego educativo no es más que una parte - muy pequeña, muy accesoria - del método Decroly en el que no desempeña más que un papel francamente secundario " .

Auxiliar-util, si;necesario, si; incluso muy apreciable, si, pero auxiliar.

Ya sea para facilitar repeticiones mante - niendo el interés, ya sea como control, ya sea para poner en evidencia ciertas aptitudes o ciertas carencias, desarrollar las primeras o tratar de remediar estas últimas, siempre sigue siendo un auxiliar.

Nunca y de ninguna manera reemplazará la base, ni con ningún pretexto se sustituirá a la base, n~~o~~ sobre todo constituirá una base.

Los juegos educativos intervienen sobre todo como " tapa agujeros ", una suplencia que implique provecho para los niños.... "

Freinet maixu handiaren " Los métodos naturales " I tomoan gai honekin zer ikusirik ez duan pasarte batean, ikusi ditekela uste dut,de-

lako jostailuei inportantzi nagusirik ez ziola e
 maten: "El maestro se considera salvado - él, no
 sus alumnos - el día en que el curso preparatori
 o sabe leer y escribir, porque entonces puede po-
 ner deberes y hacer recitar lecciones, puesto que
 es a estas " ocupaciones " a las que se limita
 el trabajo escolar. Antes de esta conquista no
 se sabe muy a menudo como ocupar a los niños...
excepto divirtiéndoles con la ayuda de juegos
pomposamente calificados como educativos "

Bai Decroly-k eta bai Freinet-ek bizitzan
 oinarritutako pedagogia nahi zuten, pedagogia bi-
 zia. Ikastolakuok ere hori nahi dugula diogun
 ezkeroz, jostailu pedagogikoari buruzko iritziak
 aztertzea komeni zaigula uste dut.



GALDEZKA ARI NAIZ

Hasi baino lehen ohar bat: Idaz-lan honetan idatzirik dagoena soilik adierazi nahi dut. Inoren borondate ona, inolaz ere ez dut zalantzan ipintzen, ez da ere lanean ari direnen ahaleginak mespreztatzen.

Irakasleen organizazioak dituen presupuestoren zifra batzuk entzun ditut eta ikaratu egin naiz benetan. Hemen agertzen ditut osatuak izan ditezten eta rektifikatuak agian.

Liberatuena	20.000 pts.	hilean
Liberatuak behar duten materiala ...	?	
Bergara kaleko etxea	6.500	
Etxeko gastuak	?	
Denda	10.000	
Dendako gastuak	?	
" materiala	?	
Dendaren traspasoa	500.000	
Dendaren irabazia	?	

Beraz, hileroko presupuestoa 40.000 pt. gutxienez dendaren traspasoa eta materialaren dirua alde batera utzirik.

Diru arazo honen zehetasun guziak irakasleei azaltzea bidezkoa dela iruditzen zait.

Hona hemen reflexiorako proposatzen dudan puntu bat:

Liberatuen lanaren efikazia,
etxearekin, dendarekin
lortzen dena

eta

Guzti horien presupuestoaren artean

Proporziorik bai ahal dago?

Galderak, hauek dira:

1) Ekonomi arazoaren erantzukizuna, nortzuk daramate? (Arren, ez erantzun "denok" edo "balleretako ordezkariak" inork ere ez esatea bezelatsu data, gauzak serio egin nahi ba dira, eta darabilzkigun zenbakiak txantxetakoak ez dira, erantzukizunak pertsonalak behar dute izan, taldea-

ren babesarekin, noski, bainan pertsona jakinak izendatuaz, hauek ikusi beharko dute aurrera jarraitzeko, taldeetan nahiko indar dagoen hala ez).

2) Liberatuek, zer programa dadukate?

3) Programa horren responsableak, liberatuak al dira, hala irakasle talderen bat? Horrela bada, nortzuk?

4) Orain arte irakasleen edo ikastoleetako, zer beharrei erantzutea lortu da?

5) Dendaren helburua zer da?

Hirugarren galderarekin lehenera nator, organizazio serio bat nahi ba dugu, erantzukizunaren zama hartuko duten pertsona konkretoak behar ditugu, taldeetan oinarriturik daudenak.

Horra hor reflexiorako bigarren puntua.

Galdera hauentzako erantzun argiak eskatzen ditut eta reflexiorako proposatu ditudan puntuak aintzakotzat hartzen ba dituzute, konklusioak azaltzea komenigarri litzakela uste dut.

Baina bukatu aurretik, organizazioari buruz nere postura agertzea bidezkoa dela iruditzen

zait eta era berean planteamendu hau egitera bultzatzen nauten arrazoinak.

Organizazioaren antolaketan ez dut parte hartu. Ez ditut ez programa, ez soluzio berririk eskaintzen ez bai dut horretarako ahalmenik.

Organizazioa axalez indartsua edo behintzat zerbait badela ematen ba du ere, presupuestoari begiratu gero, batik bat, giharrik gabea ikusten dut eta barrenean arinkeria eta ezina ezin ezin duela iruditzen zait, gaur egun gure indarrak ez bait dira organizazio handi bat aurrera ateratzeko modukoak. Itxurarekin fidaturik sakonean zer dagoen aztertuta gabe gabiltzalakoan nago, beraz geure buruak engainatzeko arrisku bizian.

Zenbait arazoaren aurrean irakasle gehienetsuenak agertzen duten arinkeriak beldurtzen nau, Adibidez: liberatuak bai ala ez planteatu zenean baiezkoa eman zutenak ez dira haien lan saria arduratu eta lau hilabetetan saririk jaso gabe egon dira. Organizazioa aho batez defenditzen dutenak, berari dagozkion gauza fundamentalen preokupaziorik agertzen ez dute, esate baterako, nik e-

giten ditudan galdereen erantzunik ez dakite.

Gu gehiegi nekatu gabe, norbaitzuk sutatik gaztainak aterako dituzten ilusioarekin bizi gerala uste dut.

Eta nik ezin dut ahaztu irakasleen eskuetan dagoela ikastoletako haurren heziketa, gehiegi reflesionatzen ez duten, ari jokatzen 'dakiten, beren buruak engainatu nahirik dabiltzanen eta benetan grabea dena hutsune hoi^{en} ezaguerarik ez dutenen eskuetan. Tentsatzen dut kondizio hoi^{en} netan oso zaila izango dela haurrak bizitzarako prestatzea edo behintzat lehiatzea benetan.

Guztiok leialtasun handienaz situazioa azter dezagun eta gure ahultasuna Aametitu beharrean aurkitzen ba gara, hala egin dezagun, gure errealitatea ezagutu ondoren bakarrik bide serio batetan barna abiatzea lor ahal izango dugu-eta.

Ohar-erantzuna

Arantxa Allur liberatuak, organizazioaren izenean, laburki bederen, erantzuna:

Artikulu hau xuxentzeko eman zaidanez, behin

eta berriro irakurri edo arakatu ondoan, esan behar dut, ez dudala inola ere konprenitzen oraino nola izan daitekean gure artean gisa horretan pentsatzen duen jendea, zehatz-mehat ballara guttietan barna informazioa eman izanik.

Datorik nagusienak: liberatuen 10 milakoa, eta haurrideren traspasoa guztiz faltsuak diranez, ez dut ikusten beste xuxenketarik egin behar dudanik artikuluari buruz.

Gainera, nere ustez, aldizkari batek ukan behar duen seriotasunak edozer gauza eta nolana hi ez jaulkitzea eskatzen duela ere ongi ikusten dut. Borondate ona - edo ez dela aski ere bai, gauzak esan ahal izateko.



ERLISIOAREN GAKOA

Beste toki askotan bezalaxe, gure herrian ere erligio arazea dela-eta, kezka eta zalantza handiak sortu dira ikastola inguruan. Horren erua elkarren berri behar bezala ez jakitean dagoela ikusirik hortaraxe ekin dugu ikastaro honen hasieratik. Lehenen, andereño-irakasleen artean beste puntuko programa batetaz baliaturik ba koitzaren pentsaera agertzen joan gara. Agerketa horixe da gaur zure eskuetan jartzen duguna. Badakigu, iritzi ezberdin asko dagoela eta gutxiegi desarroilatua direla.

Hala ere, argitasun haundirik ez bada ere, errealitatea ezagutzeko baliua dezakeala ikusirik, dagoen bezalaxe argitaratzea erabaki dugu. Konklusio zeatzagoak irakurlearen esku utziaz.

ERLIGIO AZTERKETA

1).- Nola egiten dela ikusten dugu erligio heziketa gure inguruan?

IRITZIAK:

- Guri eman zitzaigun bezala ematen da gehienik, zenbait apaizen egitekoa, txinitotaz haurrari hitzegitea da, berak bertagotik bizi dituen herri arazoak ahazturik. Honela jokatzek, haurra ren psikologiaz ahazturik gabiltzala agertzen du.

- Jaunartzea da, instruzio batzuk ematen sahiatzen dela-eta, dira, baina haurrarentzako ez da gauza bizia egiten, eta erligioa berez bizia da, bestela ez du sentidurik.

Jaunartzea dela-eta, galdera erantzun eta otoitz batzuk buruz ikasi eraziaz preparatu nahi izaten dira, baina ez dira inolaz ere preparatuak gelditzen.

- Benetako erligio heziketarik ez da egiten, haurrari sortutakorik lantzen ez den bitartean, bere adinari dagokiona baino gehiago erantsi nahi izaten bait da.

- Haurrak ulertu ezin duen gauza bat, sinboloan bidez sartu nahi izaten da, eta honela jokatuz, sinboloarekin gelditu. Jainkoa eta sinismena onartzeak berakin dakarren konpromisoa hartzeko ezaguera bat behar da, eta hau ez datza hau rraren adinean.

- Infernura joango zara eta abar-en bidez beldurra ematen duen Jainko bat agertzen da eta Jainkoa ez da mehatxuz gizona menperatu nahi duen norbait.

- Jainkoaz asko hitzegi da eta gizona ahaztu; eta hauen bien arteko har-emanak, sentidu gabeko, mekanika baten bidez egiten dela erakutsi.

- Erligio heziketa egin nahirik, moralismo bat egin izan ohi da. Txintxoa izateko hau egin behar da, zuek txintxoak izan behar zarete, bestela; pekatua, inpernua, zerua... eta b.

- Ulertu gabe buruz ikasitako hitz zerrenda bat esanaz, otoitza egiten dela, Jainkoarekin hitzegiten dela, esan ohi zaie.

Bizitzarekin lokerarik gabeko eginkizunen bidez osatu nahi izaten da erligio bizitza; meza, aitortza, Jaunartzea, t.a...., formuletan geldituaz..

Gauza guzietan erantzuna ematerakoan eta hau egi bakartzat joaz, dogmatismo paternalista egiten da. Honela heziak, behar diren berrikuntzak egiteko gai ez dira izaten.

Liburu Sainduen bidez izen eta dato batzuk ematen dira, baina gure bizitzari lotu gabe, hau instruzionismo bat da.

Konprenitu ezin den Jainko bat agertzen da.

ELKAR-HIZKETA:

- Haurraren barrenean sinismenarako ahalmen bat dago, ahalmen hau desarrollatzeko giro neurtu bat sortzea da gure egitekoa.

- Gizonak beti izango du sinbolo batzuen beharra.

- Memorizazioaren bidez almatzen dena, alferrik galtzen ahal da?

2).- Zer da zuretzat erligio heziketa deritzaio naren egitekoa gizonaren osotasun bidean?

IRITZIAK:

- Ez da " acto externo " batzuen bilduma, meza, otoitzak, etab., baizik lagun-urkoari

eta herriari begira eragin behar duen zerbait baino.

- Giza osatze bat egin ondoren gero, erligio a konsekuentzi bezala berez etorriko da.

- Formula bakarrik ez, baizik maitasunera ga raman zerbait.

- Aurretik esan den, lagun urkoarekiko eta herriarekiko proiektio hori bai, baina Jainkoa a-
haztu gabe, tartean delarik. Gaur eguneko arrixku
etako bat hontan datza, lagun urko asko baina Jainko
gabekoa bada ez da benetako erligioa izango.

- Gizona maitatzea Jainkoak maite gaitulako. Jainkoarekiko har-emanak, lagun-urkoarengana eramango gaitu.

- INAKIK- zion ondo ikasi zuan dotriña ez dala gaurko bizitzan serbitzen diona.

Bere kulpa dala esan zitzaion: Baina okerra izan da bere heziketan aurrerabiderik erakutsi etzaio lako. Ikasten erakutsi ez zaiolako.....

- Memorizazioa..... Memerin bizi dana gelditu da. Bizitzea da kontua eta ez buruan izatea. Bizi da na ez da besterik.

- Tranzedentzi batetan, bera baino gehiago dan norbaitegan sinestea. Eta sinismen honek konpromiso batera eramango gaitu eta era hontara arrazoitua da sinismena.

- Bizitzari sentidu bat ematea tranzedentzi baten bidez.

- Gizonak bere izateari erantzun bat ematea, sentidu bat ematea, bere osotasuna bilatzea. Gizona, nondik? norat? zertarako? sortua den galderari erantzuteko.

ELKAR-HISKETA:

- Gizona berez erligioa ahal da ala ez?

- Sarritan orain arte erligioa " tapadera de las ignorancias humanas " izan da. Baina hau ahal da sinismena?

- Sinismena, gizonaren argi Argitzea da.

- Erligioa ez da arrazoin hutsa, bizitza baino.

- Gizona, Jainkorik gabe ezin osatu ditek: gehiago, Xto. Jainko-gizona bakarrik da gizon osoa. Eta honegan du gizonak sentidua.

3).- Nola behar litzake egin erligio heziketa?

IRITZIAK:

- Giza heziketa egin ondoren erligioaren hautatzea berez etorriko da. Hautaze hau ez ahal da hezi behar?

- Lehenen bere inguruaz jabetu erazi konformismo bategandik aldenduaz, reflexionatu erazi az.

- Gure gainetik dagon norbait ba dela Jainko hitza esan gabe bada ere.....

- Aurrena bere gorputza aurkitu erazi, gero ingurua, izadia, eta honen bidez Jainkoaren-gana eraman. Edertasuna sumatu erazi. " Desarrollar el sentido admirativo."

- Ttiki-ttikitatik konpromisora eraman erazi, zaila bada ere, pixkanaka lortu diteken gauza da.

- Bere bizitzari lotuta dauden eginkizu-nen bidez, hauxe bai da Pedagogiaren oinarri bat. Bere arteko har-emanak eta herriko gertakizunak aztertuz....hala ere beti guztion gainetik Egi-le eta Maitale bat agertzen zaigularik.

- Bere bizitzari lotuaz, baina Jainkoa gogoan izanik, bestela ateismoa litzake.

- Maitasun bidetik, lagunarte, herrikoitasun t.ab. bidez. Bakoitzak ikusten du bere gurasoek maite dituztela baina, ez zaie iruditzen hauek besterik maite behar dutenik. Beraz, egokia izango litzake Bibliaz baliaturik, hau agertzea, alegia badugula guztiok maite gaituen Aita bat, Jainkoa hezitzaile dela t.a. Dogma gabe bada ere.

- Berak eskatzen duen neurrian, gertakizunak eskatzen duten neurrian, bere bizitzak eskatzen duen neurrian. Adibidez: giza osotasunerako gizonak bere sesotasunari erantzun bat eman behar dio, eta hau ttiki-ttikitatik giro baten bidez egiten da. Problema desarrollatzen ari den neurrian erantzun bat emanaz. Era berean erligio arazoari ere erantzun bat eman beharra da giza osotasunerako, eta hau giro baten bidez, bere desarrolloak eskatzen duen neurrian egin beharrekoa. Biak muin-muinean gauza bakarra dira gizatasunari sentidu bat, erantzun bat, osotasun bat ematea eta, gure artean, tranzendentzi batera abiatzea. Hontan bere desarrolloari aurreratzea ez da pe-

dagogikotzat ematen, sentidu gabekoa delako. Gauza bera esan genezake politika arazoaz ere: Ikas tolan, kristau heziketa bai eta, politikarik ez esatean, kontradizio bat ikusten dut.

Haurraren gizatasuna hazitzen ari den neurri eta mailan eman behar-beharrekotzat ikusten ditut, bai erligio heziketa, bai seso-heziketa, eta bai politika heziketa, batzuk aitatzegatik, gizonaren beste ahalmen guztiak bezelaxe.

- Aurrena gizon eta gero kristau, bezin faltsutzat daukat: aurrena gizon-kristau eta gero politiko.

- Giza-balorean gaineratik kristau heziketa egin nahi honek... Gure haurrak ateo izango ote diren, kristau ez ote diren izango, bildurra agertzen du. Honek, sakramenduak, kristautasuna eta gizatasunak duten lokera ez jabetzea dirudi. Erli gioari magia kutsu bat emanaz esplika diteke hau.

ELKAR - HIZKETA

- Jainkoarengana izadiaren bidez joan izan ohi gara, gaur egun " historian gertakizune tan, e.a. manifestatua " gehiago agertzen da.

- Gizonak ttikitatik du zenbait prinzipio berekin, ez ahal dira hauek berez sortu zaizkonak? ala giroak edo inguruak eman diozka hauek ere?

- Heziketaren egitekorik nagusiena eta zailena, giza jokabideei, baloreei, motibazio jator eta bizi bat ematean datza.

- Heziketa hontan, hezitzailearen egoera personalak zer ikusi handia du.

- Haurraren ahuleria dela-eta, hau segurtasun baten beharrean da. Beraz, ziurtasun batekin erantzun behar litzake, zalantzaren eta kez karen angustiarik gerta ez dedin. Baina hala ere ziurtasun hau ez ote datza gauza ikusten den bezala ematean? zalantzan daukaguna ziur bezala ematean baino?

- Erligio heziketa seso-heziketa baino sakonagoa da, dimensio zabalagoa. Giza osotasunera ez duan seso-heziketa, abere mailan gelditzen da. Honegatikantxe muin-muinean gauza bakarra da, giza osotasunean direlako era berdinean, desarrolloak eskatu ala eman beharrekoak diranez gero.

4).- Berez nori dagokio eginkizun hau: Gurasoei, Elizari, Ikastolari?

- Lehenen, gurasoei dagokio hau, gero Elizari bere egitekoa hauxe dalako, eta ondoren gurasoen heziketa lanerako laguntzaile dan Ikastolari.

- Lehenen gurasoei heziketa lanean bere influentzia beste inorena baino handiagoa delako,, eta hontarako bere bizitzaren bidez ematen duten testimonioak du indarrik handiena. Bizitza bait da heziketa eta ez kontseidu on batzuk ematen asmatzea. Ondoren Eliza da hontarako deitua baina bere egitekoari jator jarraitzen dion neurrian; Beraz, hobe gurasoen lanaren laguntzaile bezala ikastolak osatzen saiatzea, beste nahasterik gabe.

- Berez heziketa lan hau famili familiarian giro egoki ta benetako bat biziaz egin behar litzake. Giro hau ez dago famili guzietan... Elizan ere ez da ikusten giro egoki hau. Ikastola familiaren ondoren, osagarri eta zuzentzaile bezala, berari dagokio ontan ekitea.

- Zer berezitasun dago hiruren artean? Dagoen berezitasuna, anbientezkoa da, hiruretan, ez dala aurkitzen giro berdinek. Beraz, giro ez

berdin hauek lotzen eta berdintzen saiatu behar genuke.

- Gurasoen bizitzarekin egiten den heziketakin, haurraren opzioak edukatzen joan behar dira, bihar bera, bere askatasunez bere aukerarena egiteko gai izan dedin.

- Haurrak bere edukatzaileengan Jainko bizitzarik ikusten ez bada, alferrikakoak izango dira hauen aho esanak.

- Haurraz mintzatzean, ezin esan genezake, ez haur atea, ez erligiosoa, ez kristaua. Berez da la esaten ez badugu beintzat. Haurra oraindik ez bait da opzio personal bat egiteko gauza.

- Heziketa lana haurrari bizitzen erakustea da. Bizitzari sentidu bat, motibazio bat ematea. Hortarako, haurrak ausnartuko ez duen zerbait ematea, ez zaio zilegi hezitzaileari, ez-eta ere haurrak eskatzen dion arazo batetaz argitasuna emanaz, opzionala opzional bezala agertuaz, nahiz eta hezitzaileak bere bizitzan hartu duan opzioaren berri emateko eskubide osoa izan.

- Horregatik eta era hontan, zenbait hau-

ziri erantzuteko, tranzendentzi edo Jainko bat ai patu beharra izango da.

- Beraz, ikastola berez, ez da konfesionala eta ez besterik, baizik guraso eta irakasleen artean erabakitako heziketa haurrari emango zaion tokia besterik.

- Horregatik diot ikastola ez dela, berez katoliko izanik, euskal heziketa bilatzen duen es kola bat; baizik-eta, euskal heziketa bilatzen duen eskola bat, nahiz kristautasunaren bidez, nahiz bes te erligio baten bidez.

- Ezin gindezke kristau heziketa herstu batetaz baliatu hezitzaileok haurra gure mende izateko, haurra ez da gurasoentzako bakarrik baizik gizartearentzako ere bai. Beraz ez da egokia mundu hertsi batean ematen den heziketa baizik proiektio zabalagoko batean egiten saiatu behar gara. Gizonaren heziketa arloan, ezeren jabe izan gabe denaren jabe izaten erakustea da garrantzi handienetako puntu bat. Hau da, gizonaren barne askatasuna lortzea, alienazio edo bere burua desa rrollatzen ez duan menpetasuna ebitatzea.

- Gurasoak ez du irakaslearen menpean e- gon behar, ez-eta bere irakasleak gurasoen mende,

baizik-eta elkarrekin bilatzen duten argitasunaren mende biek. Bietariko edonork, bere eskubideak gaizki erabiltzen dituela ikusten duenak, hori agertu eta zuzentzen saiatzeko eskubidea du. Elkarrekin aztertu eta kolaboratuaz, berriz diot.

5).- Zein bide hartu aurrerako?

- Erligio heziketa; bizitzako arazoeri erligio esplikazio bat emanaz egingo nuke. Otoitza eginaz... Muralak, erligio motibazio batzuen bizitza agertzeko, erretrato, marrazki idazti batzuk paretean jarriaz, eta elakr-hizketak izanaz.

- Otoitza, ordu muga-gabe batzutan egingo nuke: hontarako egoki ikusten den unetan i sil-une batzuk eginaz nor berak reflexiona dezan. Eskari batzuk eginaz ere bai, baina ez formulatu batzuk, baizik bere bizitzatik ateratako batzuk.

- Orainarte bezala mekanizazio baten bi dez ez noa egitera: baizik salmo batzuen bidez, Ai ta-gurea urte-luzaroan ausnartu erazten saiatuko nintzake. Hala ere, erligioa ez dela otoitz batzuk egitea eta meza batzutura joatea, baizik bizitza osoa dela agertzen saiatuko nintzake... Mezarik

ez haur hauentzako, isil-une batzuk eginaz, Jainko_o akin hitzegiteko elizara joatea ez dala prezisoa agertu nahiean.

- Hasiara bukaerako otoitzak ez nituz_u ke egingo gertakizunak aztertuz, sortutako eska-riak baino. Lagun hurkoarekiko maitasuna agertzen saiatuko nintzake. Eguneko lana otoitz bihurtu a_u raziaz. Urte luzaroan Aita-gurea zatika explika_u tuaz ikasiko nuke. Haurraren ahotan Jainko hitza dagonezkero, ezin hori sustraizen saiatu. Horrek maite gaitula eta horregatik sortu gaitula ager_u tuaz. Bere gorputzaz jabetu erazi, bere sentidua deskubritzen saiatuaz.

- Otoitz egitea beharrezkoa ikusten dut. Salmo bidez, isilune batzun bidez eta otoitz batzuk astiro eta sentidua emanaz... Dotrinako e_u rantzunak ez noski buruz eta karretillaz baizik berak ulertzen duten eran agertu eraziaz baino. Guzti hau bizitzari lotuaz, jaiak eta beren esan nahia edo ospaketa gogoratuaz....

- Otoitz formulatuak ez: baizik elkar hizketa bidez hezitzen saiatuko nintzake. Noiz behinka bidez isil-une batzuk eginaz eta ondore

isil-une hortan egin dena elkar-hizketatuaz.

- Meza:elkar-hizketa bat Berri-Ona oinarri bezela harturik,eukaristi gabe. Gizarteko balore nagusienak deskubritzen saiatuko nintzake.

- Hilean bein edo hola,abesti bat edo beste sortzen saiatuko ginake... Aita-gurea ez nieke erakutsiko.... Jolas garaia, lana eta etxeko bizitza aztertuz, zuzentasuna, maitasuna, barkapena eta ab. agertu eraziko nieke.

- Erligio heziketa gizonaren bizitzari e rantzun bat ematea dela ulertzen dutenez geroz, sarritan zenbait gertakizun aztertzean, zenbait galderari erantzutean, tranzendentzi bat aipatu eta beraren bidez erantzun bat ematea beharrezkoa da. Aipatu bakarrik ez, baizik bere neurriko har eman bateko bide bat jarri ere bai. Hontarako otoiitz libre eta isillaren bidez saiatuko nintzake. Isilla ez bada ere, bereskoa izaten... Formula rekin alegia, l tranzendentzi batera eramatea baino gehiago, limitazio batetara, mekanika batetara, magia batetara eramatea dela deritzaitalako.

- Liburu Sainduak instruzioa bada ere eman beharra ikusten dut.... programa esanaren

bultzadaz dato bezala. Hau ez dut benetako erli-
gio heziketa bezala jotzen.

Meza ez deritzait haurraren adinekoa danik.....

Hala ere, gaurko gure egoeran erabat moztu ezin
ditekenez, bere mailan mezak duen benetako sen-
tidu bat ematen saiatuko nintzake eta beste meza
ri buruz... Meza saio hauek ikastolako zaharren-
txonekin, talde ttikietan, era honetara egingo ni-
tuzke; ikastolatik jasotako elkar-hizketa bat, es-
kari batzuk eta Berri-Ona zati bateaz jarraituaz
eta, noiz beinka eukaristia eginaz.

- Adibidez Eguberri alde hontan honela e-
gingo dut: Eguberritaz berak pentsatzen dutena i-
datzierazi: Ondoren, elkar-hizketa, zergatik zerta
ra etorri zen Jainkoa gizon eginik, bekatua...
Zer dakarkigu, txirotasuna, maitasuna, berdintasuna,
askatasuna, hortarako bere herria askatzen saiatu
zen... Hau filmina eta esku lanez osatuta.

- Elkar hizketa: Heziketa lanean haurra-
ren bizitzari sentido bat emateko, bere amets, irri-
ka eta helburuak kontuan izatea egoki da.

Gizon izatea.....

Gehiago izatea.....

Askatasun irrika, inoren mende egon nahi
eza.....

Gauza gehiago dituen, gehiago dala iru-
dipena.....

da nabarmenki haurraren ikusten ditugun irri-
kak.

Elkar-hizketako azterketa baten ondoren: es-
ka ditezken konpromisoak: reflexioa, elkar-errespe-
toa, elkar-laguntza, t.a. izan ditezke. Kristok da
karkigun mensajea itxaropena da, gure burruka gu-
ziekin ere gure helburuak oso-osorik inoiz ez di-
tugula lortuko, baizik-eta egunen batean Berak o-
sotuko duela itxarotea. Eta osotasun hau gure bu-
rrukarekin lotua dagoela gogoan izanik.

Heziketa lanean, lehen esan bezala, ahozko
influentziak baino indar gehiago du bizitzaren
testimonio influentziak. Beraz ikastola hontako
irakasle guztiak kristau sentitzen diren eskero
kristau heziketa nahi duenarentzat garantzizatua
dagoela deritzait. Nor bere lan eta pedagogiak e-
rakutsiko dio hortik aurrerakoa, eta gurasoen kola-
borazioa hontan ere, derriorezko denez gero elka-
rren berri ematea behar-beharrezkoa da.

GURE BERRIAK

1) Balentzia eta Barzelona-ko bidaia

- Jostailuen feriak, gehienbat, tira gaitu Valencia aldera. Egia, gauza gehiegirik ez dugu aurkitu pedagogiazko material sailean. Jostailua frango bai, zernahi jostailu eta guztietarikoak, baina ez hurrari begira eginik asko, hurraren bizkarretik sakela berotzeko baizik. Uste horrekin itzuli ginen, behintzat, gu. Oker ote?

- Ferran-ekin solas.- Har-eman aberatsa ukan genuena, gure arteko zerbaitentzat hain eza-guna den irakasle frenetista honekin. Geroz, kartaz adierazi dauku, orduan eskatu genion bezala, nola martxoaren 20-21 an izango den, Barzelonan, freinet-zaleentzat batzarra: udako kursillo, talde lan, material eta liburuen itzulpenari buruz.

- Dido delegazioen biltzea.- Lehenik, materialaren zerbitzuarekiko kritika egin genuen. Beste gauza interesgarririk ere aipatu zen han. Adibidez, delegazio oro elkarreraturik kooperati-

ba egitea, pedagogia-kalitatezko materialik onena sortu, bildu eta zabaltzeko, inola ere irabazia edo negozioa lehen-helburutzat ez hartzeko konpromisoarekin. Hau dela bide, eta beste zenbait arazoren aztertzeko martxoaren 22-an batzar nagusi bat bidotarrek Barzelonan. Norbait, edo bat bai - no gehiago, joatea egoki ikusten da, bai bidotarren bai-eta frenetisten batzarrerera.

- Galera editoriala, Teide eta besterik

Dakizutenez, Galera bereziki, 2 irakurgai bizien " argitaldaria da. Hori horrela, aberatsa jotzen dugu berarekiko har-emanan, berak gurekikoa jotzen duen bezala, zeren-eta peninsulako hizkuntza ttipien arazoa ez bait liteke, berak dio, elkarrekin ez izanik konpon.

- Rosa Sensat. - Izendeitura hontako katalan irakasle taldearekin mintzatu ginen. Ho na hemen, baitipat, erabilitako puntuak: bilingüismoa, irakurketa, materiala, udako kursilloak. Hurrengoan zehazkiago aipatuko dugu hau.

2) URRETXUKO IKASTALDIAK

Lehena urtarrilaren 31-an, eta martxoaren 7-an bigarrena.

Urtarrilekoa, udako gure kursilloei buruz jban zen osoki. Lan sailen tanteatze bat egin estraina: alegia, igazko konpromisoak gogoan edukirik, talde bakoitzak zer egin duen edo zertan ari denaren berri ematea.

Gisa horretan lehenbiziko bilera genuenez, ez zen hain probetxuzkoa gertatu: elkarhisketa guti, eztabaida apur bat... Halere, aberatsa jendearen aldetik, han bait ziren ballara guztietako arduradunak eta lan sailetakoak zenbait puntu argitu edo bide urratu nahirik.

Martxoaren lehen-igandekoa irakurketa eta liburutegiak, alegia, zer premia dadukagun eta zer nola muntatu behar ditugun liburutegiak ikas toletan jorratzeko asmoz programaturik zen eguerdi arteko gaia. Arratsaldokoa: lan sail bakoitzak udako kursilloari buruz harturik dituen konpromi so eta helburuen berri ematea. Baina goizekoak, gai zabala zenez, eraman zeukun egun osoa.

Dena den, funtsean, urtarrilako batzarra baino hobea gertatu zen. Askoren iritziz hilabete oro egin behar lirake horrelako batzarrak; alegia, arduradun guztien batzarrak (Nafarroa ere tartean

delarik, noski) zeren-eta elkarrekin lanera bat bilatzea derriorrezko bait dugu.

3) ALDIZKARIA .-

Motel ~~samar~~ dabil aspaldian, ezta?

Eta errua norena, edo nor ote hogendun? - Betiko erantzuna: zera, hauzokoa; ni ez beste denak, noski.

Oraintsu, bilkura bat eginik dugu aldiz kariaren arduradunekin eta arras kexu dira. Izan ere, zama guztia guti batzuen bizkarrean eta inoren kolaboraziorik gabe, pentsa nola johan liteken aurrerat gure mugimenduaren tresnarik jatorrena izan orde.

Denok eta bakoitzaren baitan dago erantzuna. Beto esperientziak. Noski, bada:

- Aldizkariaren parte bat hortara emanik esperientziak azaltzeko izanen bait da.

- Beste saila, lan sakonak, teoriako ar tikulo sakonak osatuko dute, dela autore baten itzulpen, dela gure arteko batek egin duen estudioa emateko.

- Eta azkenik, hirugarren parte bat in formazioak osatuko luke.

Horra,aldizkariaren plana,lehendanik ere e
zagun zenuena,noski,baina berritzea komeni zaigu
na,baldin-eta taxuz moldaturiko aldizkaria nahi
badugu,behintzat,pedagogiaren arloan.



Ad usum privatum